



KULTURA

ria hartuko du, ilara luzeak egin da. «Han egon nintzenezan, ilara asko ikusi nituen, denak janaria behar zuten jendez osatuak», azaldu du Arretxek. «Horregatik, liburu hau zerbitzu horiek eskaintzen dituzten elkarteentzako omenaldi txiki bat ere bada».

Eleberriarren lehenengo kapitulu *Toure detektibea* telesaillean protagonistaren rola jokatzeko duen Malcolm Treviño-Sitte aktoreari gertatutako bizipen batean oinarritua dago. Arretxe: «Madrilen zegoela, neonazi talde batek eraso zion Malcolm, eta hori kontatu zidanean konturatu nintzen banuela eleberrri berria hasteko abiapuntu bat. Informatu nintzen ea Bartzelonan ere horrelako taldeak badauden, eta baieztatu nuenean, horrela hasi nintzen». Liburuaren hasieran kontatuko du neonazi talde batek Toure sastatuko duela, eta gainerako istorioa gertakizun horren baldintzapean garatuko da. «Lur jota ikus dezakegu Toure lan berri honetan, eta argi dago bere helburua bizirautea dela», adierazi du Mujikak.

Toure telebistan

Telesaila atera zenetik argitaratutako lehendabiziko eleberria da *Zenkabak gorriak*. Ikus-entzunezko lana otsailaren 1ean estreinatu zuten, Primeran plataforman, eta ondoren ETB eta RTVE telebista kateetan eman dute. Arretxe: «Lagungarria da idazleontzat gure eleberrietatik telesailak ateratzea». Idazleak aitortu du ez duela inongo presiorik eduki azken eleberria idazterako prozesuan, telesaila abian egon den arren. «Idazten ari naizenezan, ez dut telesailen pentsatzen, ez dut presiorik sentitu». Arretxek adierazi du «arrakasta handia» lortu duela telesailak, bereziki Euskal Herrian: «Esan didatenez, normalki telebistako programek %5eko ikusle kuota edo audientzia izan ohi dute, eta Tourerakin %20koa ere lortu dute, ikaragarriko datuak dira».

Horrez gain, idazleak azaldu du normalki liburuetatik ateratako telesailak istorio ia osoa aldatzen dutela, eta eleberria oinarri txiki bat izaten dela soilik. Ordea, bere kasuari dagokionez, esan du telesailerako zenbait gauza aldatu dituztela, baina, orobat, beste hainbat mantentzeko apustua ere egin dutela: «Pertsonaia asko mantendu dituzte, hala nola Kristina, Ousmane eta Siab, Toureren lagunak. Gainera, bakoitzak zuten rola errespetatu dute». Arretxek gehitu du Treviño-Sitte Toure irudikatzen aktore perfektua dela, eleberrian «pixka bat handiagoa» den arren. ●

Atzo aurkeztu zuen Jon Arretxek *Zenkabak gorriak*, Donostian. GORKA RUBIO / FOKU

Toure Bartzelonan barrena

- Jon Arretxek 'Zenkabak gorriak' kaleratu du, Toureren sagako 11. eleberria.
- Protagonista kale gorrian bizi da, Raval auzoan, eta «bizirautea» du helburu.

Urko Iridoy Alzelai

Hamaika abentura bizi izan ditu Toure detektibeak Jon Arretxek idatzitako lerroetan. 2012an kaleratu zuen idazleak Toureren lehen eleberria, eta, harrezkeroztik, beste hamar idatzi ditu. Erein argitaletxearen eskutik, 11.a kaleratu du orain: *Zenkabak gorriak*. Protagonistaren «momentu gogorrenak» irudikatu ditu Arretxek eleberrri berrian. Aurreko liburuan Las Palmasen egon ondoren, Bartzelonara egin du bidaia orain Tourek, Raval auzora zehazki. «Pil-pilean dagoen saga da Tourerena», adierazi du Inazio Mujika Erein argitaletxeko editoreak, eta hori bera, besteak beste, liburuen eta telebistako telesailaren arrakastarekin lotu du.

Eleberria non girotuko duen erabakitzen duenean, hara joaten da Arretxe, inspirazio eta pertsonaia bila. Horrela, Bordelen, Las Palmasen eta Parisen egona

da aurrez, eta orain, Bartzelonako Raval auzora joan behar izan du. «Bartzelona ezezaguna aurkezten digu Jonek liburuan», esan du Mujikak. Hiru egonaldi egin ditu idazleak Bartzelonan, eta bertako kaleetan ikusitako momentu, leku eta pertsonak liburuan txertatzea erabaki du. Mujikak azaldu du taldeko aktoreak oso sinesgarriak izaten direla Arretxeren eleberrietan, eta horri zorrotz erantzun dio idazleak: «Sinesgarriak dira benetako pertsonak direlako. Raval auzoan egon nintzenezan, hainbat pertsona ezagutu edo ikusi nituen, eta haiek eleberrian sartzea erabaki nuen, beste hainbat liburutan egin dudana moduan. Betiere beste izen batekin, noizbait horrekin arazoak izan nituen eta».

Musker amarruak eleberririk bildu zituen Tourek Kanaria uhartertean bizitakoak, sagako hamargarrenak. Arretxe: «Las Palmasen zegoela, Tourek duda asko izan

zituena. Afrikan daude Kanaria uharteak, eta, beraz, haren etxetik gertu [Burkina Faso]. Horregatik, etxera itzultzeko gogo piztu zitzaion, baina, azkenean, familiak gorroto zuela ikusita eta haren etxea galdu egin zuela, Bartzelonara mugitu zen, itsasontzi batean». Herrialde Katalanetara iritsi, eta kale gorrian dago Toure: Bartzelonako Rambletako banku batean egiten du lo. «Momentu oso txarretan egon da Toure zenbait eleberritan. Momentu onak ere izan ditu: Parisen egon zenean adibidez, dirua bazuen eta. Baina Las Palmasen beherakada handia eman zuen, eta orain, Bartzelonan, oso eskas dago. Bakarririk dago, ez dauka Bilboko San Franzisko auzoan zuen lagun taldea, adibidez».

Toureren egoera hain txarra da, ezen lapurtzen hasten baita, baina hori ere gaizki aterako zaio. Hortaz, gosea asetzeko, bertako elkarrekin eskaintzen duten jana-



«Raval auzoan egon nintzenezan, hainbat pertsona ezagutu nituen, eta haiek eleberrian sartzea erabaki nuen»

JON ARRETXE
Idazlea